

EKIDERRA

Denok ez gara
berdinak

EZ ZARA HOBEA
IZANGO
GATEAGATIK

ALKOHOLA
EZ DA BIDEA



I. Ipuin Lehiaketa

2001-2002ko kurtso honetan Euskara Mintegiak eta Guraso Elkarteak Lehen Ipuin Lehiaketa antolatu dute eta maiatzaren 23an liburutegian elkartu ginen hainbat ikasle, guraso eta irakasle irabazleak ezagutu eta sariak banatzeko. Egun hori aprobetxatu genuen bertara azaldu zirenekin hitz egiteko eta zenbait iritzi jasotzeko.



Amaia: Nik *Abenduak 28* izeneko ipuina aurkeztu dut. Ez dut uste irabazle izango naizenik. Hala ere, sariak oso egokiak iruditu zaizkit, liburua baino egokiagoak.

Bitor Perez de Heredia: Nik idazten dudanean, ideiak nire ingurutik hartzen ditut eta sortzen ditudan pertsonaiak, ba, errealak dira eta ez dira. Aurkeztu dudan ipuinaren bukaera fikziozkoa da, errealitatea baino politagoa.

Maialen: Gustatuko litzaidake nire ipuinak irabaztea, baina zaila ikusten dut. Bai, sariak oso egokiak iruditu zaizkik, disckman-a oso egokia da gazteentzat, musika asko gustatzen zaigulako.

Janire: Nire ipuinaren gaia da gure inguruko edozein neska izan ditzakeen arazoak, baina bukaera trajikoa da, neska hiltzen da eta hori errealitatean ez da ohizkoa izaten. Ez dut uste heriotzarekin arazoak konpontzen direnik, baina ipuinarentzat bukaera egokia zela pentsatu nuen.

Irati Arriola: Idaztea gustoko dut eta eskolan lehiaketa bat antolatzea oso interesgarria iruditu zait. Lehenengoa izan arren, oso ondo dago antolatuta. Nire ipuinaren izenburua da *Hau mutiko jatorra* eta bertan neska baten maitasun istorio bat kontatu dut.

Laia Molinillo: Lehiaketaren ideia hau oso ona iruditu zait, honelakoekin jendea idaztera animatzen da, eta sariak ere oso erakargarriak dira horretarako. Aurten ez dut parte hartu, denborarik ez dudalako izan, baina datorren urtean zerbait aurkeztuko dut. Uste dut gure artean badagoela zenbait gazte zer esana duena eta gainera, oso ondo idazten duena.



Jorge Arberas: Nik ipuina aurkeztu dut nota igotzeko balio zuelako, eta hori izan da niretzat saririk inportanteena.



Isabel Moreno (Gurasoen Elkarteko ordezkaria): Honelako ekimenak beharrezkoak dira geure institutuan, ikasleen sormena pizteko eta eguneroko monotonia hausteko. Ez genuen uste honelako ikusmina sortuko zuenik gaurko sari banaketak. Harriturik gaude. Sari erakargarriak aukeratzen saiatu gara. Ez dakit lortu dugun. Agian, dirua nahiago zuketena baina, lehiaketaren helburua ez dira sariak, nahiz eta beharrezkoak izan, baizik eta idazkera hobetzea, euskara erabiltzea, komunikatzea, sormena lantzea, e.a. Lehiaketa hau lehenengoa izan da eta espero dugu datorren kurtsoan partaidetza handiagoa izatea, batez ere batxilergoan.



Andoni Arberas (irakaslea): Maila nahiko altua izan da eta zenbaitetan zailtasunak izan ditugu erabakiak hartzerakoan. Lehena izateko partaidet-

za ona izan da. Dena den, datorren urtean zenbait arlo hobetu behar ditugu, adibidez, kartelak, diplomak, ...

Irabazleak

Lehen Zikloan:

Leire Legorburu (2.F)
Estibaliz Gutierrez (1.E)
Irati Esnal (1.E)

Bigarren Zikloan:

Ainara Morales (4.D)
Ekaitz Martinez (4.F)
Iraxe Arriola (3.C)

Batxilergoan:

Sandra Sanchez (2.D)
Gorka Gallastegi (2.B)
Jaione Agirregabiria (1.B)



Sandra Sanchez: Institutuak horrelako ekintzak antolatzea ondo iruditzen zait, horrela, ikasleok aktiboki parte hartzeko aukera dugu. Niri idaztea asko gustatzen zait. Batzuren ustez, idaztea "txikien" zeregina da, besteentzat, berriz, ausardi falta. Niretzat, literatura geure barrua uztutzeko, ezagutzeko, baliagarria da. Bestalde, beste sari batzuk irabazi arren, Ekialden irabaztea "etxean" irabaztea bezalaxe da, eta horregatik sari hau oso inportantea izan da niretzat.

“BOTELLON” ARAZOA GURE INGURUAN DAUKAGU

Gaur egun telebistan “botellon” arazoa maiz ateratzen da. Geuk ere geure ikuspegia azaldu nahi dizuegu.

"Botellon" arazoa ez da gaur egungoa, duela urte asko hasi zen egiten. Baina azken bolada honetan polemika handitu da eta lege berri bat egin du Espainiako gobernuak. Leku publikoetan edateak debekatu dute, horren kontra gazte asko daude eta hemen daukagu batzuen iritzia.

-Zer iruditzen zaizu debekua?

-Ondo, debekatu behar dute kalean ezin delako edan-dio batek.

-Txarto dago, ez dute debekatu behar.

-Txarto iruditzen zait, "botellon" ez balego, jendeak diru gehiago beharko luke gastatzeko.

-Ondo eta txarto. Ondo, horrela jendea ez delako kaltetik botata egongo, eta beste alde batetik txarto, pixka bat edatea ez delako txarra.

“Alkohola oraindik zenbait etxetan tabu da”

Ikusten denez, iritzi oso ezberdinak daude, baina gehienek horren kontra kokatzen dira. Polemika hau inoiz baino handiagoa da. Ama batek esaten digun bezala "gero eta zarata gehiago egiten dute eta auzokoak kexatzen dira, eta sala-



"Botellon"-a kalean dagoela argi dago, baina zein izango litzateke konponbidea?

ketek honelako legeak ekartzen dituzte". Gainera leku askotan lurra oso zikina uzten dute, botilak botata, alkohola,... Gazte batek ironiaz dioenez "gero eta gehiago edaten dute gaurko gazteek" eta honek ere eragina du. Estatistikek esaten dute gazteen %7,7ak alkohol gehiegi edaten duela eta %2a mozkor jartzen dela. Hamabost eta hemeretzi urte bitarteko gazteen %51ak kontsumitzen ditu edari alkoholikoak eta portzentu hau %38koa zen orain dela urte gutxi.

"Botellon"-a ez da alkohola edateko era bakarra, tabernetan edateko aukera ere badago. Gazte batzuek hau nahiago dute, "kalean hotza egiten duelako" edo bi gauzak egiten dituzte.

"Botellon"-a bakarrik egiten dutenek "tabernak garestiagoak direlako" egiten dutela esaten dute. Taberna batean ezin dute nahi dituzten nahasketa guztiak egin eta diru kantitate berberarekin askoz gutxiago eros dezakete. Gazteek, gustatzen zaialako, "gizon egiteko" edota lagunek ematen dietelako edaten dutela esan digute. Nahasketa asko egiten dira, betikoak (kalimotxoa, adibidez) eta baita berriak ere.

“Tabernak garestiagoak dira botellon delakoarekin konparatuz”


"Botellon"-a kalean dagoela argi dago, baina zein izango litzateke konponketa?

Debekatzea? Gazteei eta gurasoei galdetu ondoren, badirudi azken hau ez dela egokia. Gurasoek "gazteak mentalizatu behar ditugu, bai eskolan bai etxean" esaten dute. Etxean alkoholari buruz hitz egitea beharrezkoa dela argi dago, baina familia askotan hau tabu da, sexua edo drogak bezala. Askatasunez eta normaltasunez hitz egin beharko litzateke, baina jende asko ez da gai.

Bestalde, gobernuak azaldu duen lege berri horren bitartez "botellon"-a debekatuz gain, kalean edatea ere debekatuta egongo da. Lege hau polemika guztia- ren ondoren agertu da. Espainiako hiri askotako auzokideek salatu dute praktika hau, zaratagatik, uzten duten zaborra dela eta,... Gazteek oso iritzi ezberdinak dituzte polemi-

karen zergatiaz, hauek dira batzuen iritzia: "politikoez gu izorratu nahi gaituzte"; "oraingo lelokeria bat da"; "pasatzen garelako",...

Lege berriaren ondoren oso ikuspuntu ezberdinak agertu dira, aldekoak eta kontrakoak. Honen ondorioz inkesta eta estatistika asko atera dira, egunkarietan, aldizkarietan,... Lege berria ez da Gobernuak atera duen ideia bakarra. Eskolatan eta institutuetan ikasgai berri bat jazarri nahi digute. Honetan alkoholaren arriskuak eta ondorioak azalduko zaizkie ikasleei, baita beste hainbat drogarena ere. Honekin lortu nahi dena gazteek ez edatea da, edo ez hastea oso gazte egiten, kantitate handian eta kontrolrik gabe.



"Botellon" arazoa konpontzeko jendeak egingo lukeena galdetu ondoren, grafikoan ikus dezakezue lortu dugun emaitza.

Bertan ikusten da gehien- goak ez zuela debekatuko, beste soluzio bat emango ziola. Baina legea egina dago eta orain bete beharra dago, hala ere gazte batzuek jarraituko dute egiten, debekatuta egon arren. "Nahi badut, egiten jarraituko dut" baieztatu digu gazte batek.

Lege berri honen ondoriak berehala hasiko gara ikusten, legea martxan jarri delako. Baina "botellon" delako hau historiara pasatuko den ala ez ikustea da orain geratzen zaiguna.

Egileak:
Naiara Alzola, Naiara Olave,
Jorge Izquierdo



"Botellon" ostean geratzen diren arrastoak

DEKLAMAZIO SARIAREN IRABAZLEAK**IPARRALDE EZAGUTZEN**

Abelin Barriolaren saria irabazi genuela eta, lau egun pasa genituen Hondarribiako aterpean. Handik egunero joaten ginen Iparraldeko hiriak eta herriak bisitatzeraz.

Urriaren 7an Gasteizetik autobusez abiatu ginen eta Hondarribian beste ikastetxeetako irabazleekin elkartu ginen. Guztira 7 talde Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabatik etorrira. Hondarribiako Institutuko aretoan harrera berezia izan genuen. Bertan antolatzaileek oparitzo batzuk eman zikiguten gure lana eskertuz. Eguraldi ona lagun, hondartzara joan ginen bainu bat hartzera, afaldu eta segituan Alde Zaharrera jolas batzuk egitera.

Bigarren egunean Larrun mendira igo ginen, oso erraz, tontorreraino kremailerazko tren batean. Hantxe paisajea ikusi, bazkaldu eta arratsaldean Baionako Katedrala eta Alde Zaharra bisitatu genituen.

Hurrengo egunean Miarritzeko Itsas-museoan izan ginen, eguerdian hondartzan bazkaldu eta arratsaldean Aingeruko izotz pistan patinatu genuen. Guretzat unerik interesgarrienetakoa izan zen. Oso ondo pasatu genuen batez ere irakasleak eta monitoreak erortzen zirenean. Ilunabarrean berriro Hondarribiako aterpera, afaldu eta gauean monitoreek dantzaldi bikaina antolatu zuten gu nekatzeko

asmoz. Azken gaua zela eta, lagunene beste logeletara joan ginen juerga pixka bat egitera. Oso erreza da gela batetik bestera komunetatik pasatzea. Berandu arte egon ginen loak hartu gabe eta irakasleak eta monitoreak haserretu ziren gurekin.

Txangoaren azken egunean Hasparnen dauden Otsozelaia Leize-Zuloak ikusi genituen. Bitxia izan zen estalagmita eta estalagmitekin egin zuten kontzertua. Itzuleran geldialditxo bat egin zen Donibane Lohitzunen jendea agurtzeko eta handik zuzenean Gasteiza abiatu ginen. Penaz gentozen denbora oso azkar pasa eta berriro lanari ekin beharko zitzaioleko.

Aurten ere, euskarazko irakasleen languntzaz, berriro parte hartu dugu Deklamazio Lehiaketa honetan. Oraindik emaitzak ez dituzte atera. Nahiz eta irabaztea oso zaila izan ez dugu itxaropena galdu eta gu ez bagara irteten, irabazlea Ekialdeko beste talderen bat izan dadila.

Lerro hauen bidez Celia irakasleari eskertu nahi diogu gurekin hartu zuen ardura, eta animatzen zaituztegu hurrengo batean parte hartzera.

Agur bero bat

2. C mailako ikasleak

Châteaux de la Loire et Futuroscope (Poitiers)



De nouveau en France

Nous sommes partis de Vitoria-Gasteiz le 12 avril à 11 heures du soir et nous sommes rentrés le 15 à 20 heures. Le voyage en bus a été très long et pénible, car dans le bus il faisait très chaud; mais on s'est bien amusés: on a vu un film, on a écouté de la musique, on a parlé et on a connu les étudiants d'Ikaskidea (Durana).

Quand on est arrivés au Château de Chambord, un guide nous a expliqué l'histoire de ce château de François I. Après la visite, on a eu le temps de prendre quelques photos. Ensuite, nous sommes allés au Château de Chenonceau où nous avons mangé. On a visité le château, le musée de cire et on s'est promenés dans les jolis jardins qui entourent le bâtiment.

Le soir, nous sommes arrivés à l'hôtel du Parc à côté du Futuroscope. Quelques-uns ont profité pour dormir un peu, d'autres ont dansé à "La Fiesta", le bar de l'hôtel.

Dimanche, nous sommes entrés au Parc Européen de l'Image, Futuroscope où l'on est restés toute la journée. Le soir, on a vu un beau spectacle de lumières, musique, jets d'eau,...

Le dernier jour, nous sommes rentrés à Vitoria, mais avant de prendre le bus, on a visité la ville de Poitiers: on a vu Notre Dame la Grande, on a fait des achats, on a mangé,... Enfin, nous avons passé des jours incroyables en France. À la prochaine!

3. mailako Frantses Tailerra

BERRIRO FRANTZIAN:

Loirako gazteluak / Futuroscope

Gasteiztik apirilaren 12an aterata eta 15an itzuli ginen. Bidaia autobusez, oso luzea izan zen, baina ondo pasatu genuen: musika entzuteko, hitzegiteko eta Duranako ikasleak ezagutzeko aprobetxatu genuen. Frantzia Loirako gazteluak, hain zuzen ere Chambord eta Chenonceau ikusi genituen. Poitiers-en eta Futuroscopen ere egon ginen eta primeran pasatu genuen.

DENBORAPASAK SOLUZIOAK

BIKOTEKA: 1-Abadiño, 2-Gipuzkoa, 3-Araba, 4-Tolosa.
SINONIMOAK: zatar-itxusi, ireki-zabaldu, lotsa-ahalka, baztertu-zokoratu, gogangarri-ahaztezin.
Ezkongai: oilo
ASMAKIZUNA: Eskutitza

Ekialden badago boleibol talde bat. Talde hau duela 3 urte sortu zen. Hasiera batean 8 pertsonen osatzen zuten taldea, baina denbora pasa ahala, jende gehiago apuntatzen joan zen eta orain 14 pertsonen osatzen dute. Emakumezko taldea da, baina ez dute, orain arte, Arabako ligan jokatu. Taldekideek espero dute aurtengo denboraldian ligan jokatu ahal izatea.



bat!

bi!

hiru!

Ekialde!

E- Denetarik dago, talde batzuekin ondo konpontzen gara eta beste batzuekin ez hain ondo.

G- Zein da zuen leloa?
E- "Bat, bi, hiru, EKIALDE"

G- Partidu bat irabazitakoan, nola ospatzen duzue?
E- "Borra-chera"

Taldean badituzte bi entrenatzaile, baina normalki bietako bat bakarrik etortzen da entrenamendura.

Gaur June Herrero entrenatzaileari egindako elkarrizketa duzue ondorengo.

G- Duela zenbat urte hasi zineten Ekialden entrenatzen?
E- Duela hiru urte.

G- Entrenatzeaz gain, beste talderen batean jokatzen al duzue?
E- Nik, lehenengo urtean bai, baina gero ez. Beste entrenatzaileak bai. Federico Baraibar institutuan jokatzen genuen boleibol neska talde bat aurrera ateratzeko. Orduan bururatu

Honako hau da Iratxeri egindako elkarrizketa:

Galdera- Gustatzen al zaizu boleibola kirol bezala?

Erantzuna- Bai, asko gustatzen zait, nahiz eta batzutan gogorra iruditu.

G- Zenbat entrenatzaile dituzue?
E- Bi entrenatzaile. Astean bi egunetan entrenatzen dugu, eta egun bakoitzean ordu eta erdi.

G- Eta pozik zaude haiekin?
E- Bai, baina batzutan ez dira etortzen eta ez dugu entrenatzen.

G- Egokiak iruditzen al zaizkizu Ekialde dituen instalakuntzak boleibolean jokatzeko?
E- Ez, ez dira batere egokiak eta, gainera, ez dugu lekurik denontzat.

G- Zenbat urte daramatzazu boleibolen jokatzen?
E- Aurten hirugarren urtea izango da.

G- Aurreko urteetan nola gelditu zarete ligan?
E- Ezin izan dugu ligan jolastu, ez daudelako boleibol talde nahiko, baina lagunarteko partiduak jolastu ditugu.

G- Eta zer giten zenuten lagunarteko partidu horietan?

E- Gehienak galdu baina baten bat irabazi. (barrezka)

G- Denek jokatzen al dituzue partiduak?

E- Bai, noski, txandakatzen gara.

G- Jokalarien artean harreman onak dituzue?

E- Bai, oso onak. Gure artean oso ondo konpontzen gara.

G- Eta beste taldeekin?



zitzaigun, Ekialden talderik ez zegoenez, bat sortzea.

G-Nola moldatzen zarete Ekialdeko gimnasioan entrenatzeko?

E- Nahiko gaizki gabiltza, zelaiak ez duelako izan behar duen neurria. Bestaldetik, sarea txarra da, leku gutxi dago. Dena den, espero dugu arazoak konpontzea.

G- Nola atera al dituzue aurrera entrenatzea, jokatzera eta ikasketak?

E- Ez da zaila. Astean hiru ordu eta erdi ematen ditugu entrenatzen, eta

bi entrenatzaile garenez, azterketa garaian txandakatzen gara.

G- Zenbat jokalarik entrenatzen dituzue?

E- Hamalau neska dira, baina erdia edo gutxiago etortzen da. (barrezka). 12tik 15 urte bitartekoak dira eta guztiak alferrak. (barrezka). Kategoria kadete da.

G- Aipatuko zenituzke Gasteizko boleibol talde batzuk?

E- Talde gutxi daude. Horien artean Urgatzi, Jesus Obrero, Marianistak, Aurrera...

G- Zer giro dago Arabako Boleibol Federazioan?

E- Txarra, oso txarra. Nahiko gaizki dago antolatuta, eta lehendakariak ez du bere lana egoki egiten.

G- Euskadiko txapelketara joan al da inoiz zuen taldea?

E- Bai, bi urtetan, eta hirugarren postuan geratu ginen.

Egileak: Laia Molinillo eta Olatz Perez de Biñaspere

AESLEME

Beste bizitza bat

Oso pozik bizi gara, daukaguna baloratu gabe. Edozein arazo txiki-txikitaz kexatzen gara, eta gaizki pasatzen dugu garrantzirik ez daukan txatxukerierekin. Egun batean, institutura paraplejiko dagoen gizon bat hitzaldi bat ematera etortzen zaigu eta gure arreta guztia erakartzen du.

Bere arazoa azaltzen digu, istripu baten ondoren nola gera gaitzkeen erakusten digu. Mila galdera etortzen zaizkigu burura segundu batean: bizimodu berria, izaera desberdina, aldaketa fisikoak... Ustekabeko momentu batean, dena guztiz alda daiteke.

Zenbait istripu ezin ditugu kontrolatu, baina beste asko bai, eta horretarako gure babesarako erabil ditzakegun tresna guztiak aprobeztatu behar ditugu.



Tontakeria bat dirudi, baina pertsona askoren bizitzaren suntsipena ekidii daiteke kontuan hartzen baditugu emandako aholkuak, eta garrantzitsuena: **KASKOAREKIN!**

Koman egotea, mugimenduen murrizketa, oroimena galtzea, ... Paraplejiak edo tetraplejiak pertsona desberdin bat bihurtu zaitzake. Beraz, ez bakarrik hitzaldia entzuten ari zaren bitartean, baizik eta bizitzako edozein momentutan,

pentsatu, burua erabili, edo bera gabe gera zaitezke.


Eskerrak *AESLEME* bezalako elkarteak daudela jendeari laguntzeko. Istripu bat izan ondoren, batzuk, psikologikoki gutxienez, berreskura daitezke, beste batzuk, ordea, ez.

ZEURI ERE GERTA DAKIZUKE!

Beraz, **KASKOAREKIN! ETA KONTUZ IBILI!**

Tamara Pérez Villalobos
(4. G)

BADAKIZU LIGATZEN?



4-Zure neska/mutil lagunaren urtebetetzean zer egiten duzu?

- a) Neska baldin bada lapurtutako eraztun bat oparitzen diozu. Mutila baldin bada zure aitaren korbata bat oparitzen diozu.
- b) Aurreztu duzun diruarekin zerbait dotore eta garestia erosten diozu.
- c) Ospatzeko, beste neska batekin joaten zara.

- b) Egunkarian iragarki baten zenbakira deitu.
- c) Zure lagun bati neska/mutil bati zutaz hitz egitea eskatu.

9-Zure neska/mutil lagunak gustatzen ez zaizun opari bat oparitzen dizunean

- a) Oso polita dela esaten diozu, berak gogo handiekin egin duelako.
- b) Beste bat daukazula eta aldatuko duzula esaten diozu.
- c) Ez zaizula gustatzen esaten diozu.

10-Neska/mutil laguna edukitzeko gogo handia baldin baduzu, eta neska/mutil itsusi batek berarekin liatzea eskatzen dizunean...

- a) Baietz esaten diozu.
- b) Ezetz esaten diozu.
- c) Baietz esaten diozu, baina zure lagunak zutaz barre ez egiteko ezetz esan diozula esaten diezu zure lagunei.

Imanol Iturrioz eta
Jorge Mtz de Alegria

1-Neska /mutil eder bat ikustean.....

- a) Berataz paso egiten duzu.
- b) Piropoak botatzen dizkiozu eta zure lagunaren artean hobereena zaren itxura ematea saiatzen zara.
- c) Berarengana joaten zara eta hitz egiten hasten zarete gau guztian.

5-Neska/mutil laguna baldin baduzu eta beste neska/mutil bat intsinnatzen baldin bazaitzu, zer egingo zenuke?

- a) Ezetz esaten diozu.
- b) Gehien gustatzen zaizunarekin joaten zara.
- c) Biekin gelditzen zara.

2-Gustatzen zaizun neskak edo mutilak neska/mutil laguna baldin badu, zer egingo zenuke?

- a) Etxera joaten zara eta berataz ahazten zara.
- b) Intsinuatzen zara bere neska/mutila lagunaren aurrean.
- c) Neska/mutila lagunari jotzen diozu.

6-Zure neska/mutil laguna beste batekin badoa, zer egingo zenuke?

- a) Bere lagun hobereenarekin joaten zara.
- b) Sexuz aldatzen zara eta gustatzen zaion neska edo mutila kentzen saiatzen zara.
- c) Gustatzen zaionari jotzen diozu.

3-Zure neska/mutil lagunak zurekin ez duela gehiago atera nahi esaten dizunean...

- a) Negarrez hasten zara.
- b) Berak zuez uzteko konbentzitzen hasten zara.
- c) Berdin zaizu bi neska/mutil laguna dituzulako.

7-Zenbat denbora egon zara zure neska/mutil lagunarekin?

- a) Gau bat.
- b) Bost hilabete baino gutxiago.
- c) Bost hilabete baino gehiago.

8-Zer egingo zenuke neska/mutil laguna lortzeko?

- a) Iragarki bat jarri egunkarian.

Balorazioa (batu zure puntuak ondorengo taularen arabera):

- | | | | |
|-----|-----|-----|-----|
| 1. | A=1 | B=2 | C=3 |
| 2. | A=1 | B=3 | C=2 |
| 3. | A=1 | B=3 | C=2 |
| 4. | A=1 | B=3 | C=2 |
| 5. | A=3 | B=2 | C=1 |
| 6. | A=3 | B=2 | C=1 |
| 7. | A=1 | B=2 | C=3 |
| 8. | A=2 | B=2 | C=3 |
| 9. | A=1 | B=2 | C=3 |
| 10. | A=2 | B=3 | C=1 |

EMAITZAK:

1-5: Espezialista batengana joan behar duzu zurea normala ez delako.

5-10: Zurea ez da ligatzea, baina hori informazio pixka batekin konpon daiteke, Ez desanimatu!

10-20: Ondo zoaz baina oraindik zailtasunak dituzu ligatzeko. Hobe dezakezu.

20-30: Zu, neska edo mutil hobereena zara eta nahi dituzun neskak/mutilak zure atzetik joango dira, **SEGI HORRELA!**

30 edo gehiago: Ez zaitez hain gezurteroa izan!

HOROSKOPOA



Aries: notak oso onak ez izan arren zorte ona izango duzu eta oporretan oso ondo pasatuko duzu zure lagunekin, baina ondo pasatzeko etxean lagundu beharko duzu.
Mutilentzat: neska batengan fijatuko zara, baina ez jarri oso harro berarekin, uxatu nahi ez baduzu.
Neskentzat: gustatzen zaizun mutilkoak ez du neska lagunik eta denboraldi honetan zurekin gehiago hitz egingo du, baina utzi berari pausuak ematen.

Tauro: opor hauetan zure etxean geratuko zara, baina zure lagunekin irtengo zara, hori bai, etxeko lan asko eta ikasi egin behar duzulako.
Mutilentzat: zure laguna den neska bat zutaz maiteminduko da eta zuk ez duzu jakingo zer egin, ondo pentsatu!!
Neskentzat: norbaitek zurekin atera nahi izango du, baina zure lagunik onenari gustatzen zaionez, ez duzu jakingo zer egin.

Geminis: opor hauetan festatik festara ibiliko zara eta oso nekatuta bukatuko duzu. Baina, badakizu, ona betiberehala bukatzen da eta zure gurasoek errieta botako dizute. Kontuz ibili!!!!
Mutilentzat: zure neskak utzi zaituenez, neskez paso egitea erabaki duzu, baina bat-batean neska eder bat ezagutuko duzu, eta....
Neskentzat: gustatzen zaizun mutila beste neska batekin egongo da.

Cancer: zure bizitza ez da aldatuko urte honetan, beti egiten duzuna egingo duzu, zure gurasoekin egon oporretan.
Mutilentzat: opor hauetan neska berri bat ezagutuko duzu, zuen artean zerbait egon daiteke zuk lehenengo pausua ematen baduzu.
Neskentzat: zure ametsa egia bihurtuko da, gustatzen zaizun mutila zugar fijatuko da.

Leo: zure herriko lagunekin elkartuko zara, urtero bezala. Urte honetan zerbait aldatuko da, jai handi bat prestatuko duzue eta mozkortuko zara.
Mutilentzat: mozkortuta zaudenean herriko neska politenarekin enroilatu zara.
Neskentzat: mozkortuta zaudenean gustatzen zaizun mutilari maite duzula esango diozu, eta berak ez dizu jaramonik egingo.

Virgo: Hainbeste edateak gaizki egingo zaitu, hobe duzu freskagarriak edatea eta disfrutatzea!
Mutilentzat: bakarrik egongo zara eta ez duzu inor buruan izango, hala eta guztiz neska polit bat agertuko zaizu eta erotuko zaitu.
Neskentzat: nahi zenuena lortuko duzu, zure atzetik zegoen mutil astuak bakean utziko zaitu.

Libra: uda dator eta zure alergiak izugarritzko lana emango dizu, baina lasai, ez da horrenbesterako izango.
Mutilentzat: duela asko ezagututako neska bat zutaz maiteminduko da eta zu berataz ere bai.
Neskentzat: espero ez duzun mutil bat zure atzetik joango da eta las-ter berarekin ateratzeko eskatuko dizu. Buru hauste izugarriak izango dituzu.

Eskorpio: azken boladan diru gehiegi gastatu duzu eta zure zorrak ordaindu beharko dituzu, istilu batean sartu nahi ez baduzu.
Mutilentzat: zure neska laguna zurekin utziko du, asko aldatu zarelako.
Neskentzat: zure mutil laguna beste batekin joango da eta zuk oso triste geldituko zara, baina beste mutil bat agertuko da eta oso pozik egongo zara, mutiko hau beste batekin joan arte.

Sagitario: trapitxeotan ibiltzen baldin bazara kontu handiz egin. Hobe duzu ez egitea!
Mutilentzat: konturatuko zara zure atzetik dabilen neska gustoko duzula.
Neskentzat: bi mutilen artean egongo zara eta oso ondo ezagutuko dituzu norekin geratu erabaki baino lehenago.

Piscis: ikasturte bukaeran zaude eta notak ez dira zuk nahi bezalakoak izango, horregatik gehiago ikas-tea eta klasean arreta handia jartzea erabaki beharko duzu.
Mutilentzat: ez duzu denbora askorik izango ateratzeko (ikasten oso okupatua egongo zarelako eta edukitzen duzun denbora zure lagunekin pasatzen duzulako).
Neskentzat: ez duzu zorte handia izango mutilekin denboraldi honetan.

Capriconio: kontuz osasunarekin, ez edan freskagarri asko bestela eztarriko mina edukiko duzu eta.
Mutilentzat: hain arro jarraitzen baldin bazara inork ez du zurekin egon nahi.
Neskentzat: ez pentsatu hainbeste betidanik gustatu zaizun mutilaz, mutil asko daude bizitza honetan eta.

Cristina Torres eta
Jorge Mtz de Alegria.

DENBORAPASAK

Erantzunak 7. orrialdean

BIKOTEKA

Lotu galderak
bere erantzunarekin:

1. Non dago Muntzaraz dorrea?
2. Zein herrialdetan dago Mutriku?
3. Zein herrialdetan dago Estibalitzeko santutegia?
4. Herri honetako inauteriak oso famatuak dira.

Gipuzkoa

Abadiño

Tolosa

Araba

SINONIMOAK EZKONDU

<i>zatar</i>	<i>zabaldu</i>
<i>ireki</i>	<i>aberats</i>
<i>dirudun</i>	<i>ahalke</i>
<i>lotsa</i>	<i>ahaztezin</i>
<i>gogoangarri</i>	<i>olio</i>
<i>baztertu</i>	<i>itsusi</i>
<i>zokoratu</i>	

Ezkongai dagoen hitza?:

Azkarra al zara?

- 1- Zein da munduko ibairik luzeena?
a) Amazonas b) Nilo
c) Mississippi d) Zadorra
- 2- Zein da munduko mendirik altuena?
a) K2 b) Everest
c) McKinley d) Olarizu
- 3- Zein da EEBB-ko hiriburua?
a) New York b) Los Angeles
c) Las Vegas d) Washington
- 4- Zein ez da izan TAU-eko jokalaria?
a) Juan Alberto Espil
b) Jordi Millera
c) Darrell Midletong
d) Velimir Perasovic
- 5- Zein jokalaria hauetatik ez da brasildarra?
a) Rivaldo b) Magno Mocelin
c) Mostovoi d) Djalmilha
- 6- Non jaio zen Johan Mueleg?
a) Albacete b) Guadalajara
c) Munich d) Brusela

7- Zeinek irabazi zuen *Operación Triunfo*?

- a) Manolo Escobar b) El Fary
c) David Bustamante d) Rosa Lopez

8- Nork aurkezten du Pasapalabra?

- a) Jesus Hermida b) Ana Rosa Quintana

c) Mercedes Milá d) Silvia Jato

9- Euroa aurkezten zuen familiaren izena?

- a) Los Padilla b) Los Arberas
c) Los García d) Los Bustamante

10- Pertsonaia hauetatik nor ez zen bizi Lazarorekin?

- a) Abeltzaina b) Itsua
c) Eskuderoa d) Apaiza

Iker Rioja

ERANTZUNAK:

1-B, 2-B, 3C, 4-C, 5-C, 6-C, 7-D, 8-D, 9-C, 10-A
0-5: Eta, aurrezkola aprobatu zenuen?
5-7: Hobe dezakezu.
7-9: Segi horrela!
10: Ikasi duzu... eta azkarra zara, e?

ASMAKIZUNA:

*Zer dela eta zer dela,
hitz egiten dakiena,
baina ahorik ez duena,
hegan dabilena eta
hegorik ez duena?
Zer da?*

LAGUNTZAILEAK:

**EKIALDERANTZ
GURASO
ELKARTEA**

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**